

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

1239

EBAZPENA, 2017ko otsailaren 23koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, Bizkaiko eta Gipuzkoako portuetan, 2017tik 2019ra, izozki-postuak jarri eta ustiatzeko baimenak esleitzeko prozedura hasteko dena.

Lehenengoa.– Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onar-tzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 74.b) artikulua ezartzen du baimena lortu beharra dagoela ondasun higigarriekin, instalazio desmuntagarriekin edo halakorik gabe portuetan jabari publikoa gehienez hiru urtez okupatu ahal izateko.

Bigarrena.– Urriaren 21eko 236/1986 Dekretuak onartutako Portu Jardueren Erregelamendua-ren 3. artikuluari jarraikiz, portua arautzea, portuko zerbitzuen azterketa eta kontrola eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren portuetan eta portu-instalazioetan aurrera erama-ten diren lanei buruzko guztia Ekonomiaren garapen eta Azpiegitura Sailaren esku dago.

Horregatik guztiagatik, eta Zuzendaritza honen eskumena denez, apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 6.e) eta 14.1.m) artikuluetan jasotakoaren arabera, zeinaren bitartez Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organiko eta funtzionala zehazten baitzen (inda-rran dagoen Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorraren arabera),

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2017tik 2019ra, biak barne, izozkiak saltzeko postuak instalatu eta ustiatzeko baimenak esleitzeko prozedura hastea, honako portu hauetan:

Bizkaian:

Armintza: postu 1

Bermeo: postu 1

Elantxobe: postu 1

Lekeitio: postu 1

Ondarroa: postu 1

Gipuzkoan:

Donostia: postu 1

Deba: postu 1.

Getaria: 2 postu.

Hondarribia: 4 postu.

Mutriku: postu 1

Zumaia: postu 1.

2017ko martxoaren 8a, asteazkena

Bigarrena.– Esleipen-prozeduraren inguruko informazioa Bizkaiko Portuen Lurralde Zerbitzuaren bulegoan (Elkano 3, behea, 48011 Bilbao), Gipuzkoako Portuen Lurralde Zerbitzuaren bulegoan (Intxaurrondo 70, 2. solairua, 20015, Donostia) eta Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua I, 7. solairua, 01010 Vitoria-Gasteiz), izango duzu eskuragarri astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Halaber, esleipen-prozeduraren inguruko informazioa eskuragarri egongo da helbide elektronikoko honetan: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus>

Hirugarrena.– Prozeduran parte hartzeko eskariak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita. Epea azken egunaren eguerdiko 14:00etan bukatuko da, edo, jaieguna balitz, lehenengo lanegunean.

Laugarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 23a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MIKEL GURUTZEAGA ZUBILLAGA.